

2022KO EKAINAREN 15EKO OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2022-06-15.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Jose Esteban Aguirre Zubieta
Patxi Castillo Graciarena
Ines Rosario Matxiarena Aldalur

HERRIRAKO

German Castillo Lazcanotegui
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Maialen Chantre Irazoki

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

Estibaliz Pinacho Olaciregui
Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2022-05-18). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

Raquel Quiroga bilerara sartu da.

2. INES ROSARIO MATXIARENA ALDALUR ANDREAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Ikusirik:

- Hauteskunde Batzorde Zentralak Ines Rosario Matxiarena Aldalur andrearen zinegotzi-kredentziala bidali duela, Euskal Herria Bildu taldeko Josu Irtzoki Agirre jaunaren ukoak eragindako hutsik geratu den postua betetzeko.

- Matxiarena andreak udal idazkariaren aitzinean egin duela egon litekeen bateraezintasunei buruzko aitorpena, baita diru-sarrerak ematen dizkioten edo eman diezazkioten jardueri buruzkoa ere, eta bere ondare-ondasunei buruzko deklarazioa, hori guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Legez ezarritako prozedura betez, alkateak galdetu dio Ines Rosario Matxiarena Aldalur andreari ea zin egin edo promes egiten duen, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formularen arabera: "Zinez edo zuen kontzientzia eta ohoreagatik hitzematzen al duzue Berako Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak zintzotasunez beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa gorde eta betearaziko duzuela, Estatuaren funtsezko arau gisa?". Matxiarena andreak zin egin du legeak hala behartuta.

Horren ondoren, zinegotzi karguaz jabetu da formalki, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. 2022/10 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (OSASUN ETXEKO TEILATUA; ABELTZAINZAKO AZPIEGITURAK). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2022ko ekainaren 10ean egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Udalak jaso dituen dirulaguntza hauengatik: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 16ko 409/2022 Ebazpena, Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia ebazten duena, herriko kontsultategien eta kontsultategi lagungarrien eraikuntza eta eraberritzea finantzatzeko; Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 19ko 346/2022 Ebazpena, abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

- Ondoko hauek direla kreditua behar duten aurrekontu aplikazioak:
1-3121-62200. Kontsultategiko teilatua birmoldatzea. 27.878,40 €.
1-4121-69200. Abeltzaintzako azpiegituren mantentze-lanak. 48.006,12 €.
Zenbateko osoa, 75.884,52 €.

- Gastuak ondoko diru-sarrera kontu-sailekin finantzatzeko direla:
1-7508005. Dirulaguntza kontsultategiko teilatua birmoldatzeko. 27.878,40 €.
1-7508007. Dirulaguntza abeltzaintzako azpiegituren mantentze-lanetarako. 48.006,12 €.
Zenbateko osoa, 75.884,52 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA diru-sarreraren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2022/10). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

4. 2022/11 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-TRANSFERENTZIAK (OSASUN ETXEKO TEILATUA; ABELTZAINZAKO AZPIEGITURAK; FUTBOL-ZELAIKO KOMUNAK ETA OSTATUA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik kontu-hartzaitzak 2022ko ekainaren 10ean egindako txostenak adierazten duela indarrean dagoen aurrekontuko gastu-partida batzuetan ez dagoela kreditu nahikorik, eta, beraz, kredituak transferitzeko espediente bat onartu behar dela (2022/11 zk.). Aipatzen du ondoko hauek direla transferentzia behar duten gastu-partidak:

1-3121-62200. Kontsultategiko teilatua birmoldatzea. 9.292,80 €.

1-4121-69200. Abeltzaintzako azpiegituren mantentze-lanak. 66.865,50 €.

1-3423-60900. Aldagelak eta ostatua eraikitzea Matzadan. 3.617,90 €.

Zenbatekoa, guztira: 79.776,20 €.

Kontuan izanda aipatu txostenean proposatzen duela haiek finantzatzea partida hauetako kreditutik eginiko transferentziarekin:

1-15100-64000. Udal plana aldatzea. 9.292,80 €.

1-1612-60900. Fibrozeamentuzko arteriak ordeztzea hirigunean. 66.865,50 €.

1-1710-64000. Azterketak/Aurreproiektuak. 3.617,90 €.

Zenbatekoa, guztira: 79.776,20 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 216. eta 217. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 11. eta 9. Exekuzio Oinarriei jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/11 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-transferentziak).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenerari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

5. 2022KO PLANTILLA ORGANIKOA ALDATZEA (UDAL AGENTEARI TXANDAKOTASUNA KONPENTSATZEA). HASIERAKO ONARPENA.

Ikusirik:

- 2021eko azaroaren 10eko osoko bilkuran, hasiera batean onartu zela Berako Udaleko eta Musika Eskolako langileen 2022ko Plantilla Organikoa. Behin betiko onarpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 10ean (5. zenbakia).

- 2022ko ekainaren 10eko Alkatetzaren probidentziaren bidez, 2022ko Plantilla Organikoa aldatzeko espedienteari hasiera ematea xedatu zela, udal agentearen txandakako lan-erregimena aldatu delako.

- Idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak egin dituztela.

- Alkateak idatzi duela aldaketa proposamena.

Azaldutakoan oinarriturik, baita aipatutako Alkatetzaren Probidentziaren arrazoiketan ere, eta kontuan izanik aplikagarria den araubideak ezartzen duena, **aho batez ERABAKI DA:**

1. Hasierako onespina ematea jarraian zehazten den Udaleko langileen 2022ko Plantilla Organikoaren aldaketari, 2022ko uztailaren 1eko efektuekin:

Plantilla Organikoaren aldaketa:

* Lanpostua: Udal agentea.

Kopurua: 2.

Araubide juridikoa: Funtzionarioa.

Maila: C.

Lanpostuko osagarria, %16,35 (txandakako lanaren konpentsazioa barne).

Berariazko osagarria, %45.

Sarbidea: Oposizioa.

Laneko egoera: 1 jardunean/ 1 hutsik.

Euskara maila: C1 ahoz/ B2 idatziz.

Udaleko langile finkoen izenen zerrendaren aldaketa, XXXri dagokionez:

Araubide juridikoa: Funtzionarioa.

Kargua: Udal agentea.

Egoera administratiboa: Jarduenan.

Aitortutako zerbitzuen data: 1999-11-27.

Maila: C.

Gradua: 4.

Lanpostuko osagarria, %16,35.

Berariazko osagarria, %45.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko aldian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, Plantillaren aldaketa behin betiko onartutzat joko dela.

6. OIHAN ENKANTEA NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ETA 639 ZENBAKIKO MENDI KOMUNALETAN, "OIARNU", "BORDAKO ERREKA" ETA BESTE PARAJE BATZUK.

Ikusirik Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoko 638 eta 639 zenbakietako mendietan lote honen oihan-aprobetxamendua egiteko espedientea:

*** LOTE BAKARRA.**

- Parajeak: Oiarnu, Bordako erreka, Ardanbide, Arantxipierreka, Errekaundi, Kaprio, Arregi, Eraste.
- Espezieak: Quercus rubra (haritz amerikarra); p. radiata (insignis).
- Ondoak: 3.056.
- Zuraren bolumena: 650,71 m³.
- Egur txiki/peia bolumena: 1.274,12 m³.
- Bolumena, guztira: 1.924,82 m³.
- Balorazioa, 38.529,03 €.

Kontuan hartuta Baso eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 27ko 217/2022 Ebazpenaren bidez baimentzen dela aipatutako baso-aprobetxamendua.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 166.1 artikuluan, Nafarroako toki araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru Legearen Bosgarren Xedapen Gehigarrian, eta Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan xedatutakoaren arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Basoko lotearen aprobetxamendua enkante publiko bidez saltzea, gutun-azal itxiko prozeduraren bidez.
2. Esleipena arautuko duen baldintza ekonomiko-administratiboen plegua onestea.
3. Enkante honen iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazio Atarian, Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietako batean edo gehiagotan, Udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren webgunean.
4. Enkantea hutsik geratzen bada, atera bigarren eta hirugarren enkanteetan, %10eko eta %20ko beherapenarekin, hurrenez hurren.

7. NA-10.505 TOKIKO EHIZA-BARRUTIAREN EHIZA-APROBETXAMENDUA ZUZENEAN ESLEITZEA EHIZTARIEN TOKIKO ELKARTEARI.

Ikusirik NA-10.505 tokiko ehiza-barrutia eratzeko espedientea, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 7ko 542E/2022 Ebazpenaren bidez baimendu dena.

Kontuan hartuta Udalaren osoko bilkurak, 2022ko otsailaren 16an egindako bileran, erabaki zuela esleipena ehiztarien tokiko elkarteari zuzenean esleitzeko prozeduraren bidez egingo zela.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legean, hura garatzeko Erregelamendua onartzen duen 48/2007 Foru Dekretuan, eta aipatutako 542E/2022 Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Berako ehiza-barrutiaren (NA-10.505 tokiko ehiza-barrutia) ehiza-aprobetxamendua esleitzeko baldintza-agiria onartzea.

2. Ehiza-barrutiaren ehiza-aprobetxamendua Tokiko Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteari esleitzea, jarraibide hauen arabera:

2.1. Aprobetxamendu hori eginen da onetsitako baldintza-agirian, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legean, eta hura garatzeko Erregelamendua onartzen duen 48/2007 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.2. Epea: 2031-32ko ehiza-kanpaina bukatu arte.

2.3. Lehen urteko zenbatekoa: 2.881,89 euro.

2.4. Esleipena baldintzatua geratzen da dagokion ehiza antolatzeke plana onartzeari. Plan hori elkarte esleipendunak egin beharko du.

3. Erabaki hau bidaltzea Basogintza eta Ehiza Zerbitzuari, baldintza-agiriarekin eta 542E/2022 Ebazpenaren 5. puntuan eskatutako esleipendunaren datuekin batera.

4. Erabaki hau jakinaraztea esleipendunari, baldintza-agiriarekin batera.

8. LGTBI+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Alkateak aurkeztu ondoren, adierazpen instituzional hau ontesi da **aho batez**:

“Ekainaren 28an kaleak kolorez eta aldarrikapenez janzten dira LGTBI+ kolektiboaren borroka nabarmendu eta aldarrikatzeko. 1969ko ekainaren 28an Stonewallen (New York) izandako istiluek LGTBI+ kolektiboarentzat inflexio-puntu bat markatu zuten, egun hori erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen transexualen eta intersexualen aurka ezarritako errepresioari aurka egiteko mugarri izan baitzen.

Hainbat urtetako aldarrikapenaren eta borrokaren emaitza gisa, LGTBI+ kolektiboa geroz eta ikusgaiagoa da. Eskubideen arloko aurrerapenei dagokienez, ukaezina da gure lurraldean eta beste hainbat herrialdetan aurrerapauso nabarmenak eman direla, hala nola, sexu bereko bikoteen ezkontzak legeztatzea, adoptatzeko eskubidea eta 8/2017 Foru Legea (ekainaren 18koa, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari Buruzkoa).

Egun, gizartean LGTBI+ kolektiboarekiko onarpen soziala hedatua dagoen arren, kolektiboaren aurkako diskriminazio egoerak ez dira bukatu. Oraindik ere badira mundu guztian eta baita Nafarroan ere homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren ondorioz gertatzen diren eraso eta diskriminazioak.

Ekainaren 28 honetan Bortzirietako Udalok argi dugu oraindik ere asko dagoela borrokatzeko LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde; arrazoiak soberan daudela lesbiana, homosexual, transexual, bisexual zein intersexualen herritar eskubideak aldarrikatzen

jarraitzeko gure bailaran zein lantokietan, ikastetxeetan, familia eta lagunartean, aisialdi eta jai eremuan ... Bortzirietako Udalok aniztasun afektibo sexualaren borroka egunerokoa eta herritar guztiona dela ulertzen dugu, horregatik honakoa adosten dugu:

1. Udalok lan eginen dugu Bortzirietan LGTBI+ pertsonen ikusgaitasuna izatearen alde; kanpainak babestu eta burutuko ditugu, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- eta genero-identitate, harreman afektibo-sexual eta familiakoen arloan aniztasunak duen balio positiboa sustatzeko.

2. Babesa ematen diogu, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozial eta erabatekoa lortze aldera, oroimen-datetan ekitaldiak eta jarduerak egiteari, horiek normalizazio-bitarteko eta ikusgaitasunerako bide baitira.

3. Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak kanpainak sustatuko ditu, LGTBI+ kolektiboko kideek sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu- eta genero-identitatea direla-eta jasaten duten diskriminazio anitza desagerrarazten laguntzeko.

4. Bortzirietako Udalok LGTBI+ kolektiboaren aurka gerta daitekeen edozein eraso gaitzesten dugula eta Bortzirietan horrelako jarrerarik onartzen ez dugula argi utzi nahi dugu.”.

9. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B11/2022 zenbakidunetik B17/2022 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 131/2022 zenbakiko Ebazpenetik (2022-05-16) 156/2022 zenbakiko Ebazpenera arte (2022-06-10).

10. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:40ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.